

GERIZAREN ZIZELKADA

*Baina ezkutuan zu zeu zinen beti
mozorrorik gabe, biluzik
garbi zion ispiluak:
beldur zinen, urduri*

*Zalantza ibai bihurtu zen
ez genuen asmatu inoiz
zubi txiki bat eraikitzen, maite*

Zalantza ibai, Fernando Morillo

I

GERIZAK, IRAGANEKO HAIZEAK ASTINDUAK

Iluntzeko eguzkia urratzen duen panterarena izan litekeen oihu batek esnatu berri zaitu, hau gauaren zirrikituetatik sartu bailitzan, isilik. Hori ezin liteke horrela izan, ordea, iluntasunak oraino ez baitu zerurako sarbiderik aurkitu, oraindik kolore beroen jabetza gailentzen den margolana ikusta baitezakezu begirada gorantz jasoz gero. Ez, gerizak ez dira desagertu. Etxeratzeko garaiz izango da, beraz.

Non zauden ez dakizu seguru. Jakin badakizu etxetik hurbil behar duzula egon; edo, gutxienez, horrela beharko zenukeela. Ez zara aurkitzen zaren puntu zehatzaren jakitun, ordea. Apika, norbaiti galdetzea izango duzu onena. Badakizu L hizkiaz hasten den hiri batean zaudela, akaso Leipzig, edo Lisboa... Lyon, Londres, Liverpool... Letrak josi eta harilkatu nahi izan dituzu. Letrak, ordea, korapilatu egin zaizkizu, ezer ganorazkorik ez duzu ateratzerik lortu datu bakar horretatik.

Ondo pentsatzen jarrita, ingelesez hitz egiten duten lurralderen bat izango dela ondorioztatu duzu azkenean, orain arte ingurutik igaro den jende oro ingelesez mintzo baitzen. Nolanahi ere, kontua da ziur zaudela L hizkiaz hasten den hiri batean zaudela.

Beharbada hobe lehenbizi zer ordu den begiratzea.

Pauso gutxi batzuk eman dituzu aurrera eta ibaiaren bestaldean bistaratu duzun eraikin altuari erreparatu diozu. Ez dakizu zehatz-mehatz nola izan den, baina bihozkada batek burua gorantz zuzentzera eraman zaitu. Sei eta erdiak. Ama gozoa izango duzu, beranduenean ere, bostetan etxean izateko eskatu baitizu. Eskaria baino, agindu moduan hartu duzu zuk; berandu helduko zarela eta kezkatu egin zara zeharo.

Behin orduaren jakitun zarelarik, non zauden, hurrena. Zure ingurua aztertu nahi izan duzu, baina begiak zuhaitzetan zentratu dituzu.

Iraganeko haizea dantzan dabilela sentitu duzu, nahiz eta amak horrenbestetan errepikatzen duen esaldi horren esanahia ezagutu ez. Loreak ere ferekatzen ditu, eta hauen usain gozoaz ohartu zara. Orduan, eguzki inarrek errealitaterantz bultzatu zaituzte, astiro, artean bi pauso eman eta Tamesis deritzon ibaira jaustea eragozten dizun eskudelarekin topo eginez; bai, honela irakurri duzu zeure eskuinetara daukazun kartelean: *River Thames*. Aurrean inongo arriskurik ez eta begiak ixtea

erabaki duzu, orain arte hilik izan dituzun zentzumenak berpizteko ahaleginetan. Haizeak zu zeu ere gozokiro nola laztantzen zaituen sentitu duzu. Atsegin duzu, eta segundo batzuetan geldirik geratu zara, haizeari laztan zaitzan utziz. Iraganak ez du hiltzeko burusiaz inguratzen pertsona. Ez duzu horrela uste, behintzat. Baina hori ziurtatzeko gazteegia zarela dio zure amak, azken batean, zazpi urteko mutikotxo baina ez zarela.

Orain entzumenaren txanda dela erabaki duzu. Txoritxoak jolasean, haizeak zuhaitzetako hostoak nola astintzen dituen aditu. Baina ibaian behera doazen uren hots arranditsuak gaintitu du lasaitasunaren melodia. Zarata era berean lasaigarriaren joko gaiztoan erori eta begiak ireki dituzu. Eguzkiaren argitasunak itsu utzi zaitu lipar batez, baina hasperen bat baina bizkorrago amaitu da.

Uretan ageri den mutikotxo arrotzerantz makurtu duzu begirada. Hasiera batean ez duzu ezagutu. Ile beltz distiratsua dauka, eguzki-izpiak bertan islatuko balira lez. Begi berde ñimiñoak inguruko berdetasunari so eginez. Ezpain arrosa biziak. Argal samarra da, baina indartsu dago. Bere begien parean ezarri dituzu zureak, eta berberak direla konturatu zara; zu zeu zarela haur hori, alegia, uretako ispiluan islaturik.

Zure eskua ur epeletan sartu nahi izan duzu, ibai horretan murgildu ziren iraganeko oroitzapenen bila ari bazina bezala. Bai, hori ere amaren ezpain artetik irtendako hitz sorta, ulertzerik lortu ez duzuna. Aitarekin egoteko beharra sentitu duzu. Joan zenetik sentitu izan duzu haren huts handia, baina azken bi aste hauetan bere mina areagotu egin zaizu, ama eta nire aita berriak Euskal Herritik Ingalaterrara etortzea erabaki zutenetik, zure iritzia kontuan hartu gabe.

Aita hemen egotea desio duzu, guztia lehen bezala izatea, eta min horri aurre egiteko ibaiko ur epeletan hondoratutako iraganeko oroitzapenak salbatu dituzu, une goxo haiekin gogoratu zara, berriro bizitzen ari bazina bezala. Ez, ezin duzu, ez duzu ezer gogoratzen eta. Artean txikiegia zinen aita hil zenean. Hari buruz dakizun oro amak kontatua da, eta honen hitzetan, irudi bakarrak hitzez betetako zaku batek baina gehiago esan nahi du.

Ez dakizu nolatan gertatu den, baina bat-batean gorputza amorrut bete zaizu, eta uretan islaturiko zure irudia desagertu zedin nahi izan duzu. Lurretik harritxo bat hartu eta zure islarantz jaurtiki duzu, baina irudia ez da erabat desagertu. Mutil arrotz horrek hor jarraitzen du oraindik.

Zure ezkerretara norbaiten begiak sumatu dituzu, zuri so. Lepoa biratu duzu astiro-astiro, eta gizon gazte bat begira daukazula ohartu zara. Irribarre egin dizu, baina zuk ez diozu itzuli, aldiz, begira geratu zatzaizkio. Irribarrez ari zaizu, bai, baina zuk tristura igarri diozu begietan. Berauen kolore urdina itzalirik sumatu duzu, itsaso ukiturik gabe, erabat grisak, itzalek hartu balituzte bezala; iraganeko gerizek hartu balituzte lez.

Une horretantxe, norbaitek atzetik ukitu zaituela konturatu zara, eta ondorengo hitz sorta hau heldu zaizu eskuineko belarrira: “Got you!”. Luken ahotsa ezagutu duzu eta lokuluskaren aurretik jazotako guztiaz oroitu zara. Lukek korrika bizian egin du alde, eta zuk atzetik jarraitu diozu, seguru baitzaude gainerako lagunak honezkero aurkituko zituena eta ez duzu Luken oinetakoak jantzi eta besteak ezkutaleku bikainen bila ingurua miatzen dabiltzan bitartean hauek aurkitzeko ahalegin hutsaletan ibili gura.

Erronka kamuflatzeko modu bikaina izan diren beste hitz batzuk Luken ezpain artetik:

- You'll never catch me!
- Egon zaitez horretan!

Ulertu ez dizula ziur zauden arren, zuk aurrera jarraitu duzu begiak Lukegan iltzaturik, hau bistatik ez galtzeko. Bidegurutzera heldu zaretenean, ordea, gizon batekin tupust egin duzu honek eskuetan zeramatzan karpeta eta orri solte guztiak lurrera jausi dira. Luke ia bistatik galdu baduzu ere, bere itzala begiztatzeko izan duzu nahikoa asti noranzko bidea hartu duen jakiteko. Itzalaren atzetik joan besterik ez duzu

Itzalaren atzetik, iraganera bidean...

* * *

- Aizak, noiz ordainduko didak? – Gorputzean izuak eragindako astindu batek egoeraren seriotasunaz ohartarazi nau nolabait. Mintzoan ere urduritasunaren salatari bikaina izan den dardara moduko bat nabaritu zait. Haatik, ez dut uste Davidek ezer hautematerik izan duenik.
- Hi, inoiz huts egin al diat akaso? Ez hadi horrenbeste kezkatu diruagatik, lehenbizi beste kontu batzuk itxi behar ditiagu eta. – Ezin izan dut hasperentxo bat botatzea eragotzi lankidearen inarrospenaren ostean. Damuaren mozorroa etengabe sastaka ari zaidala sumatu dut lipar batez, baina diru hori aukera ezin hobea da nire iragana alde batera utzi eta bizitza berri bat hasteko. Iraganeko haizeari ez diot berriro ni laztantzen utziko. Ez diet iluntasunaren morroi diren itzalei berriro nire begirada iluntzen utziko.
- Zertaz ari haiz? Ze kontu dituk horiek?
- Ez egin horrenbeste galdera, gero eta gutxiago jakin honi buruz, orduan eta garbiago egongo haiz. – Kontu honi guztiari usain txarra hartzen hasia natzaio. Davidi aurpegira esatea ere otu izan zait noizbait. Ez naiz ausartzen, ordea. Ez dut neure burua arriskuan ikusi nahi. – Hi, azken fabore bat egin behar didak.

Bidegurutze batera heldu naiz, baina hau gurutzatu aurretik semaforoan argi gorria piztuta dagoela konturatu naiz, eta itxaron egin behar izan dut argi berdea piztu arte. Baina orduan, atzetik iskanbila moduko bat sumatu dut. Konturatzera, haur bat gainean nuen eta eskuetan neramatzan dokumentu guztiak lurtean zeuden pausatuta.

- Joder! Be careful! – Haurrari zuzendu natzaio, baina honek berehalakoan egin dit ihes lasterka bizian. Guztiak ahal bezain txukunen jaso eta mugikorra belarran jarri dut berriz.
- Kar, kar, kar! Ingelesa praktikatzen hasi al haiz? – Inongo graziarik egin ez didan ironia puntu bat igarri diot.
- Ez dik batere graziarik, aditu! Ume mukizu bat gainera etorri zaidak eta kontu honen guztiaren paperak lurrera erori zizkidak. Baina lasai, ez diat uste ezer falta denik, ondo begiratu diat.
- Hobe duk horrela izatea. Inork ez dik jakin behar frogetako balioak eta diagnostikoa manipulatu genituanik. – Ahotsean haserre tonuak sakelakoa belarritik pixka bat aldentzera eraman nau.
- Zer eskatu behar hidan?
- Nire semea hor inguruan dabilela esan zidak Alizek. Ikusi al duk? – Inguruari begirada bat bota diot, lankideak eskatu bezala. Ez dirudi inongo haurrik dabilenik inguru

hauetan. Agure hirukote bat, ohi bezala, elkarri batere interesik gabeko kontuak kontatzeko asmoarekin. Ene eskuinetara begiratu dut, eta gizon bat ikusi dut niri bizkarra emanez, begiak Tamesis ibaian iltzaturik dituelarik.

- Ez, hemen ez zebilek ia inor. Agure talde bat berriketan eta ezer gutxi. Eta Alex ere bai, pentsatu genian bezala. Bide batez, ez duk hirea.
- Nor kristok agindu dik besteen kontuetan muturra sartzeko? Bihartik aurrera nirea izango duk, gogoratzen? Horretarako prestatu diagu hau, ez ezak ahaztu. Tira, Jonen bila joan beharko nauk. Egongo gaituk, eta lasai, dirua bihar bertan hor izango duk.

Mugikorra eskegi eta galtzetako patrikan sartu dut Alexek bira eman eta ikusi baino lehen. Neure buruarekin gaizki sentitzen hasi naiz, baita egitera goazenarekin ere. Hobe esanda, dagoeneko egin dugunarekin. Baina ez zait besterik geratzen, ez baitut iraganeko kateen preso bizi nahi, neure oroitzapenen kartzelatik ihes egin ezinik. Ez, ez dut iraganaren haizearen preso izan nahi. Itzalak desagertzea nahi dut, besterik ez.

* * *

Beste behin, usadioak, irrika eta, eskuarki, herriko bazter guztietan zehar dabilen haize gozoak dakarzkien zurrumurru horiekiko guztiekiko jakin-mina asetzeko gogo bizia tabernaren kanpoaldeko hamar bat mahaitxoetako batean elkartu gara arratsaldero lez, kafetxo bat hartzeko xedearekin. Hitz-aspertu ederra izango dugu gaurkoan ere.

Solasaldia hasi da: egunerokotasunaren ukiturik falta ez zaien hizpideak. Arratsak aurrera egin ahala, enegarren aldiz ere errepikatuko diren barreak entzun daitezke noizbehinka, baita beste hizkuntzaren batetik mailegu moduan harturiko hitzen bat edo beste ere. Ezerezetik asmatu berba bik hartu dute lekua uneren batean, eta, hauei jarraiki, laster hautsiko den isiltasuna, aton ezinegonaren salatari bikaina den hasperen batekin elkartuko dena.

Gaua laster helduko zaigu eta, dagoeneko etxera bidean izan behar genuke guztiok, baina oraindik Douglasek badu Ben eta bioi zer kontatu. Halere, solaskideari baino kasu gehiago egiten ari natzaio parean ikus dezakedan gazteari. Erabat goibelduta, atsekabetuta dagoela esango nuke, arratsalde osoan ez baita hortik mugitu. Altxatu eta beragana hurbiltzea out zait. Horrela, hitz hauekin zuzendu natzaio:

- Bizitza ez da erraza, ezta?
- Zer dakizu zuk?
- Barkatu, baina, begiraidazu. Jakingo ez dut, bada, bizitza nolakoa den ia 70 urterekin? – Erantzunik jaso ez izanak animoak beheratu dizkit zeharo, amore emateraino.
- Tira, bederen, ez iezaiozu iraganeko haize bortitzari zuhaitza botatzen utzi, ados?

Lagunengana itzuli naiz, eta iraganeko gomutapenak hezurmamitzen jarraitu dugu beste hamar minutuan, erabat ilundu duen arte. Dagoeneko ez dago ia argirik inguruetan, eta itzal gehienak desagertu dira. Zeruko iluntasunarekin egin dute trukea, bihar argitzen duenean eguzki-printzekin batera lurrera jaitsi eta iraganeko haizeak astin ditzan.

Bai, biharko haizea iragarri dute telebistan...

II RIVER FLOWS IN YOU

“... Bakarrik geratu naizen arte ez naiz zuri hitz egiteko bezain aske sentitu, Alize. Ausardia falta ere izan da, apika. Bakarrik egon nahi nuen, ziur egon nahi nuen hor egongo zinela, niri barik entzuten, niri barik laguntzen. Arrazoi duzu. Barkaidazu. Barkaidazu agure atsegin horri eman diodan tratuagatik, ez baita batere egokia izan. Onartzen dut, bai. Kontua da, ez dudala ulertzen. Ez, ongi entzun duzu, dagoeneko zazpi urte igaro badira ere, ez dut ulertzen zergatik eraman zintuen. Ez dut inoiz ulertu. Ezta ulertu nahi ere.

*Eta atzamar puntak erre dizkidazu
nahita edo nahi gabe
zeure burua erre duzunean*

Zugan pentsatzean, horrenbeste gustatzen zitzaizun Leire Bilbaoren poesia datorkit gogora lehenbizi. Bai, “Pospoloa” izenburupean etorri zitzaizun hori. Bai, nik ulertzerik lortzen ez nuen hori. Baina orain ulertzera heldu naiz. Esperientziak irakatsi dit, Alize. Orain ulertzen dut zu zeu izan zarela pospoloa, munstro krudel horrek gure eztei bezperan jan zintuena hilabetetako borroka gogorraren ostean. Zu, pospolo, pospolintxo, poxpolintxo. Zu, zeure burua erre zenuena eta ene atzamarrak erre zenizkidana. Nahi gabe izan zela pentsatu nahiko nuke. Nahi gabekoa izan zela zu eramateko erabakia. Nahita harturiko erabakia izan balitz, erabat krudela izango zatekeen; bai zuretzat eta baita niretzat ere.

Halere, niretzat dagoeneko krudela izan da zazpi urte hauetan zu barik bizi behar izana. Ez genuen barruan zeneraman munstro hura gainditzerik, bera bizkorragoa izan baitzen. Eta erredura hark hemen dirau zazpi urte eta gero, itxi ez den zauri gisan.

Eskuartean izaten zenuen poesia-liburu hura ere badatorkit burura. Oier Guillanen “Ama”. Honela zioen:

*Bizitza, heriotzaren zirriborrea
oroimena, bizitzaren zirriborrea*

Ez zenuen bizitza erraza izan, baina hori zirriborrea baino ez zela izan pentsatu gura nuke, zimur-zimur egin eta paperontzian galduko dena. Hori horrela balitz, ordea, bizi genuena ezerezean gordeko litzateke, ahaztuta utzirik. Eta nik ez dut hori horrela izaterik nahi. Nik gogoratu egin nahi zaitut, gogoratu. Oroimenaren bidez mantendu nahi zaitut bizirik. Hori da desio dudana. Baina desio hauek guztiak hezurmamitzeko ahalegin hutsala baino ez da izango, norbaiten iritziz ene bizitza behar bezain gogorra ez baita izan. Eta zertarako jarraitu bizitzen laster zu neure oroimenean berpizteko gai izango ez banaiz?

Egun osoa eman dut saiatu eta saiatu. Baina ez dut hemen igaro genuen gau hura gogoratzerik lortu. Dagoeneko ezin ikus dezaket zure aurpegia. Harrigarria da zeinen azkar mugitzen den ene gogoaren jabe egin den munstro hau, ezta?

Zin dagizut saiatu naizela. Baina itzalak baino ez ditut gogoratzen kale argi batek argituriko horma bat zikintzen, ez besterik. Bikote baten itzalak, zeuk, Alize, isilean abesten zenuen kantua jantziz. “River flows in you”, horixe zen gaua argitu zigun melodiaren izena, hori gogoan dut. Izugarri gustatzen zitzaizun kantu hura. Eta gau hartan ere, hura aukeratu nuen zeure barruan nigan bizia sortu zuen ibaia isurtzen zela esateko. Zuk baiezko alaiaz erantzun zenidan, eta gau

hotz hari kolorea eta berotasuna oparitu zenizkion. Guztia prest izan genuen egun handi hartarako, baina joan egin zinen, nire besoetatik ihes egin zenuen, berriro ez itzultzeko.

Orain ere, "River flows in you" daukat ene barruan, pentsamendu hauen guztien atzetik entzungo duzun melodia gisan. Eta gau hartan bezalaxe, betiko zurekin egon nahi dudala errepikatuko dizut, nahiz eta beste modu batera izanen den. Ez bainago prest itzalak baino ez gogoratzeko. Ez bainago prest bizitzen jarraitzeko, zure aurpegiak ene bihotz hotza berotuko ez badu. Ez nago prest iraganeko haizeak behin eta berriz min eman diezadan uzteko."

Negarrak hondoratu zituen begi haien atzean, erabakia dagoeneko hartu zen. Malko bat masail hotzean behera, laster berotzeko zain, Tamesis ibairaino jausi zen. Malko hura izan zen lehenbizi erori zena...

III ARGITURIKO GERIZAK

Txirrinaren hotsak berebiziko sustoa eman zion Alizeri, eta sukaldeko lanak alde batera utzi bezain laster etxeko sarrerarantz zuzendu zen atea irekitzeko xedez.

- Hara nor ditugun hemen! – irribarre batez semea eta senarra musu batez agurtu eta atea ixteko mugimendua egin zuen besoaz emakumeak. Senarrari soinean zeraman txabusina erantzten lagundu zion leunki, laguntzeko asmoa beste musu batez zigilatuz. Honek barre bihurriaz ihardetsi zion.
- Jon, zoaz zeure gelara eta jantzi ezazu pijama afaldu baino lehen, ados? – agindu zion Alizek semeari tonu goxoaz. – Eta, bide batez, garbitu itzazu eskuak. – Jon pasilloan desagertu zen, Alize eta David atzean utziz.
- Bihartik aurrera ez dugu itzalen beldur izan beharko, bidea erabat argiturik geratuko zaigu.
- Aizu, Alize, zure heriotzaren aurretik, ez zenion esan haurdun zeundela, ezta? – beste musu bat erantzun moduan. Orduantxe, Jon agertu zen sarreran.
- Ama, ezetz asmatu zer erosi didan Davidek?
- Jon, berriro esango dizut, Davidi aita deitu behar diozu, zure aita da.
- Baina, nire aita ez al da Alex? – Alize semearengana makurtu zen, honi ilea laztanduz.
- Bai, tira, baina... iragana atzean uzten ikasi behar dugu guztiok, maitea. Badakizu zure aita zu jaio baino lehen joan zitzaigula, eta guztiok, baita zuk ere, iluntasunean argi izpiak bilatu behar ditugu, eta horretarako, iragana atzean utzi beharra daukagu, bizitza berriak eraikiz. Orain David da zure aita, eta, ei, ikusten dudanez, aita ona da, ezta? Zer da hor duzun hori?

Gau hartan, zeruko iluntasunari oparitu zitzaizkion itzaletako asko geratu ziren lurtean. Baina pixkanaka argituz joan ziren, hurrengo goizeko eguzki-printzekin batera itzal gehiago jaitsi arte.

